

**2013KO IRAILAREN 16AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO
OHIKO BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hamaseia.

HILABETEA: Iraila.

URTEA: Bi mila eta hamahirua.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko zortziak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK: M^a Mar Celaya González

Aitor Aldasoro Iturbe

Alfonso Segade González

Josi Insausti Mujika

Garbiñe Zurutuza Fernández

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2013ko uztailaren 29ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- USURBE ANTZOKIA ETA ERAKUSKETA ARETOAREN USTIAPENA KONTRATATZEA: baldintza plegua onartzea eta deialdi publikoa egitea.

Gogorarazi da, 2013ko uztailaren 29an egindako Gobernu Batzordeak ondorengo erabakia hartu zuela:

“**Lehenik.** 2013-06-28ko GAOean argitaratutako Usurbe antzokia eta erakusketa aretoaren ustiapena eta antzoki horretarako 3D / 2D sistemarekin proiektio digitalerako ekipamenduaren hornidura eta instalazioa kontratatzeke deialdia hutsik uztea, proposamen egokia ez delako baldintza pleguan ezarritako baldintzak bermatzeko.

Bigarren. Bi deialdi berri egitea, alde batetik zinearen digitalizazioaren hornidura eta instalazioa kontratatzeke eta bestetik Usurbe Antzokiaren eta erakusketa gelaren ustiapena kontratatzeke. Horretarako beharrezkoak diren baldintza agiriak prestatu beharko dira.”

Horren ondorioz, Usurbe antzokiaren eta erakusketa-aretoaren ustiaketa kontratatzeke, baldintza plegua egin da eta 2013ko irailaren 12an egindako Kultura Batzordeak Gobernu Batzordeari proposatzen dio, baldintza plegua onartzea eta deialdi publikoa egitea.

Zinearen digitalizazioa, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez egingo da, lizitazio prezioa 60.000,00 € gainditzen ez duelako.

Bozketa eginda, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Usurbe antzokia eta erakusketa-aretoa ustiatzeko baldintza plegu administratiboa onartzea. Ezaugarri berezienak hauek dira:

- 1.- Prozedura: irekia publizitatearekin
- 2.- Izapidetzea: arrunta
- 3.- Lizitazio prezioa: 90.000,00 € + gehi BEZri dagokiona urteko.
- 4.- Egikaritze-epea: lau urtealdi eta beste urte betez luzatzeko aukerarekin.
- 5.- Espedientea: administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoen pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian (www.beasain.net). Zehazki kontratistatzailearen profilean.
- 6.- Proposamen eredia: Baldintza Administrazioen pleguaren azaltzen dena.
- 7.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 15 egunetan.
- 8.- Adjudikazio irizpideak:
 - Proposamen ekonomikoa: 30 puntu.
 - Jardueren memoria: 20 puntu.
 - Hobekuntzak: 10 puntu.
- 9.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.
- 10.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatuzaileek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Bigarren. Esandakoa kontratatzeke deialdia publikoa egitea, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz.

3.- PROIEKTUA ONARTZEA ETA OBRAK KONTRATAZEA:

J. M. Barandiaran parkea urbanizatzeko eta jolas guneari estalkia jartzeko” izeneko obra-proiektua eta baldintza plegu administratiboa onartu eta deialdi publikoa egitea:

Ezagutzera eman da, 2013ko maiatzaren 20ko hirigintza batzordeko proposamena, hau da:

1.- J. M. Barandiaran parkea urbanizatzeko eta jolas guneari estalkia jartzeko” izeneko obra-proiektua Oscar Luquin Martinez eta Diego Simón Hierro arkitektoek idatzitakoa eta 2013ko uztailaren data duena onartzea.

2.- Obra horiek prozedura irekiaren bitartez kontratatzeko baldintza plegua onartzea eta deialdi publikoa egitea

Baldintza pleguaren xehetasun garrantzitsuenak ondorengoak dira:

1.- *Prozedura*: irekia publizitatearekin

2.- *Izapidetzea*: arrunta

3.- *Lizitazio prezioa*: 412.968,02 € BEZ kanpo, 499.691,30 € BEZ barne.

4.- *Egikaritze epea*: 4 hilabete.

5.- *Kaudimen ekonomiko, finantziario eta teknikoari buruzko agiriak*:

- a) Arrisku profesionalen kalte-ordainari erantzuteko 600.000,00 €ko aseguruaren egiaztapena.
- b) SOILIK azken bost urtetan gauzatutako obren zerrenda, gauzapean oneko ziurtagiriz bermatuak, zenbatekoak, datak eta obrak non gauzatu diren bertan adierazita.

6.- *Espedientea*: administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoen pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian (www.beasain.net). Zehazki kontratistatzailearen profilean.

7.- *Proposamen eredu*: Baldintza Administrazioen pleguaren azaltzen dena.

8.- *Aurkezteko epea, lekua eta ordua*: Proposamenak, Beasaingo Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 26 egunetan.

9.- *Adjudikazio irizpideak*:

- a) Proposamen ekonomikoa 90 puntu

Atal honetako balioespena egiteko, Zerbitzu Teknikoek, beharrezkoa ikusiz gero, alde z aurretik aurkeztutako eskaintzak homogeneiza ditzake.

Puntuazioa emateko honela jardungo da:

1. BALIOZKOTZAT jotako eskaintza GUZTIAK zenbatekoaren hurrenkeran (goitik behera) antolatuko dira.
2. Ekonomikoena suertatzen den eskaintzak 90 puntu jasoko ditu eta A ESKAINTZA izendatuko da.

Beste edozein eskaintza, B izendatua, horrela balioetsiko da:

$B \text{ ESKAINTZAREN PUNTUAKETA} = 90 + 1,25 \times ((A \text{ eskaintzaren zenbatekoa} - B \text{ eskaintzaren zenbatekoa}) / 1000$

b) Euskera. 5 puntu

Jarraian adierazten diren dokumentuaren bat enpresak beraien eskaintzak egiterakoan aurkezten badituzte 5 puntu emango zaizkie:

- EUSKERA sustatzeko ziurtagiria, hala nola “BAI EUSKARARI”, “BIKAIN” edo antzeko izaera dutenak eta kontratua exekutatzekoan ezaugarri horiek aplikatzen badituzte.
- Aipatutako ziurtagiriak lortzeko baldintzak betetzen dituztenaren, zuzenbidean frogan modura onartutako edozein agiriak.

c) Berdintasuna. 5 puntu

Enpresan emakuaren sustapena lortzeko eta eta kontratua exekutatzekoan ezaugarri hori aplikatzen duela kreditatzen duen ziurtagiria aurkezten ditzuten eskaintzak 5 puntu emango zaizkie.

Egiaztagiria modu honetan egingo da:

- Gobenu Estatalak edo EMAKUNDE emandako berdintasunari agiria edo organismo publikoaren batek emandako antzeko agiria.
- Aipatutako ziurtagiriak lortzeko baldintzak betetzen dituztenaren, zuzenbidean frogan modura onartutako edozein agiriak.

10.- *Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua:* plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

11.- *Aurkeztu beharreko agiriak:* Lizitatzailleek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, Idazkariak ohartarazi du hirigintza batzordean esandakoa, hau da: euskara eta berdintasun irizpideei ematen zaien kontsiderazioak kontratuaren helburuarekin zer ikusi zuzena ez dutela eta horren ondorioz konkurrentzia irizpidearen aurkako diskriminazio klausula aurreikusten dela Pleguan.

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE) adierazi du, hori horrela izanda edozeinek plegua inpugnatu dezakeela.

Bozketa eginda, aho batez onartu da.

4.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko zortziak eta laurdenetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.